

# NAJA KALEKO LEKAIME DONEA

Lekaime-etxeke bere aizta ziran lekaimeek "Sor Corazon" esaten eutsoen eta berak beti esaten eban iñor baiño geiago bear-izanean dagoana, gaisoa dala eta bear-izan ori askoz larriagoa zala, ondasun barik dagozenena baiño.

Jesusen Biotzaren Maria aiztea izena eukan lekaime au Gazteiz'ko Herrera kalean jaioa zan. Iru urtekoa zala berna biak elbarrituta gertu zan eta ortik sortu jakon bizi guztirako nekebidea ta kalbarioa. Mirariz osatua izan arren, elbarria osatu jakonean biotzeko miña etorri jakon eta onek bere bizi guztian, amalau urtean iraun eban. Gaiso mingarri onek ez eutson izten ogean atsedena arzen eta bere aita aurkigifia zan ezkerero, aurki egoki bat egin eban eta orrelan bere buruari atsedena emon al izaten eutson.

## BILBAO'N SORTZAILLE

"Maria'ren Mirabeak" deritxon lekaime-taldearen sortzaille izan zan Bilbao'n: gero ez eban izan aukerarik, baiña Bartzelona'ra joateko asmo eukan. Ez eban bete asmo ori eta Bilbao'ra etorri zan azkenez. Ori diñosku Aita Nebreda'k idatzi dauan bere bizitzearen kondairak.

Bilbao'ra eldu eta Ronda Kalean Kurutzearen Alabak deritxoan lekaimeen etxean artu eben etxera. Ibarguengoitia'tar Mariano Erretore Jaunak artu eban euren ardurea.

## NAJA'KO SORTETXEA

Esperantza Kalean eukan bizilekutik barriro urten ziran Ronda Kalera, oraingo onetan 23n.atera.

Sortzailleagaz batera, lau lekaime-aizta ziran: Burgos'ko Sakramento aiztea, Davila'tar Kontzepzion aiztea eta Elorrio'tarra zan Mercedes aiztea. Gerotxuago alkartu jaken Galarraga'tar Soledad aizta gipuzkoarra.

Erritarren arteko guda zala-ta, Ronda'ko Lekaime-etxea itxierazo egin eutsen eta Gazteiz'era joan ziran. Emengo Gotzaiñak onartu ebazan, "Jesus'en Mirabeak" izenagaz, 1874n. urtean irasia zan erleiño-alkargo lez.

Baiña zer ete dauko Bilbao'k ainbestean beragana erritarrak ekarteko! Ainbeste bider itxia izan zan lengo Ronda kaleko etxera biurtu ziran eta emen ikusten doguz "Maria'ren Mirabeak" barriro. Ibarguengoitia ababe ona erbesteratuta egoan eta ezin bete izan eban len lez lekaimeen Gogo-Zuzendaritza. Ama Obrazon aukeratu eben nagusi izateko eta ementxe artu eben indarra lekaime bariak.



1877'an Ronda'ko 12 lekaime Naja'ko etxe batera aldatu ziran. Abarrategi'tar Teresa zan etxe onen jabea eta il zanean bere ondasunak, ortua, etxaldea ta dana lekaimeen eskuetan itzi eban bere azken-naia egin ebanean. Olan egin al izan eben "Maria'ren Mirabeak" eleizea ta lekaime-etxe barria.

## ILLERRI GURGARRIA

Lekaime-etxe onetan, aur-ontzi baten lez, irasi eban al-kartea Sor Maria Josefa edo "Sor Corazon" eritxonak, Jainkoaren eragin eginkorrak eraginda eta apostolu-lanetarako.

Sortzaillea bera bizi zala, España'ra ta Ameriketara 43 lekaime bialdu ebazan eta orain 76 iraspen dagoz eginda.

Sor Corazon il zanean, bere gorpua Derio'ko Ittegira eroan eben eta gero andik, bein betiko, barriro ekarri dabe lekaimeen otoitz-lekura. Ementxe dago bere gorputz usteldubakoa, azken-egunean epai orokorrean turuta-otsa entzun-arte.

LETONA'k